



Ariketa hauek Ikasbileko 2025854 atazan aurkituko dituzu

**Audioaren erreferentzia:** JJ-59 Nire besoetan

**Mailak:** B2-C1

**Funtzioak:** telesaileri buruzko iritzia eman, gomendioak eman, azalpena egin, deskribapena egin

**Adierazpide linguistikoak:** lexikoa (*telesail, spolier, pertsonaia, denboraldi, atal, ...*) -ela, -n unetik, (*denborazkoa*), *bakar, besterik, -ko (sakontasun handiko...), alde batetik...bestetik, damutu*

**Azken ekintza:** telesail baten ahozko gomendioa egin eta euskaltegiko blogean argitaratu.

## EGITEKOAK

### 1-Ikasgelara etorri aurretik egitekoa.

#### 1.1 Telesailen gorakada



Gaiari hurbiltzeko eta ikasgelan, audio-pasartea entzun aurretik partekatzeko jarduera:

Telesailen arrakastaren zergatia azaltzen duen testu-zatiak irakurri eta galderari erantzun. Ondoren, gaiari buruzko gogoeta egiteko galdera gehiago erantzun behar dituzte.

#### TESTUA:

- *Astean zehar neka-neka eginda iritsi ohi gara etxera. Ordu-piloa lanean pasatu eta deskantsatzeko momentua nahi izaten dugu. Une horietarako, liburua hartzeko, telebista pizteko, filma bat ikusteko edo telesailen bati heltzeko joera dugu. Oso atsegin dugu besteen kontakizunetan sartzea, gurea alde batera uzteko, une batean bada ere. Filmek eta telesailak xede hori dute: historia edo istorioak kontatzea.*
- *Filmetan kontatzen den istorioak denbora aldetik muga handiagoa du. Kontakizuna denbora zehatz batean kontatu behar da, eta telesailetan, berriz, hainbat segida egin ditzakegu, atalak, denboraldiak... Horrek istorioa gehiago lantzeko aukera ematen du.*
- *Azkenean, telesailen kontsumoa filmen moduan egiten da: telesail bat erosi edo deskargatu, eta filmaren moduan ikusi nahi izaten dugu; hau da, bi ordu jarraian, agian hiru edo egun osoa. Badago egun osoa telesailak ikusten igarotzen duen jendea ere.*

[ikasbil](#)

#### Zuzenketa:

#### Irakurritakoaren arabera, zeintzuk EZ dira telesailak ikusteko arrazoiak?

- Istorioak eta historiak kontatzen ditu
- Kontakizunetan sakontzeko aukera ematen du
- Ikuslearengan umorea piztea du helburu**
- Labur zein luze ikusteko aukera eskaintzen dute
- Pantaila handian ikusteko prestatuta daude gehienak**

#### Gogoeta egiteko galderak:

1. Idatzi arrazoi gehiago telesailen gorakada erakusteko
2. Nolako telesailak nahiago dituzu? Zergatik?
3. Azkenik, idatzi ikusi dituzun 3 edo 4 telesailik onenen izenburuak

### 2- Ikasgelan amaitu ondoren egitekoak.

Elkarrizketako esaldietan aditz-molde egokiak kokatu

# 1- Entzun aurretik

## 1.2 Iritziak partekatu

Aurreko ariketan bildu dituzten ideiak eta iritziak partekatuko dituzte bikoteka. Komentatu dezatela, baita ere, nolako telesailak dituzuen gustukoen eta ikusi dituzuen telesailik onenak.

# 2- Entzun bitartean

## 2.1 Zein telesail ikusten ari dira?

Jon eta Jone telesail bat ikusten ari direla jakin dute ikasleek. Audio-pasartea entzun eta esan dituztenen artean, telesail hori zein den aukeratu behar dute.

**Zuzenketa:**

<input type="checkbox"/> <b>Juego de Tronos</b>	<input type="checkbox"/> <b>Sexo en Nueva York</b>
<input type="checkbox"/> <b>Utopia</b>	<input type="checkbox"/> <b>Mad Men</b>
<input type="checkbox"/> <b>Prision Break</b>	<input type="checkbox"/> <b>Soprano's</b>

## 2.2 Telesailei buruzko interesak

Telesailei buruzko baieztapenak egia ala gezurra diren bereizi behar dituzte. Ondoren, ikaskidearekin alderatuko dute.

**Zuzenketa:**

- |                                     |                                     |   |
|-------------------------------------|-------------------------------------|---|
| <input checked="" type="checkbox"/> | <input checked="" type="checkbox"/> |   |
| <input type="checkbox"/> <b>x</b>   | <input type="checkbox"/>            | Soprano's telesailaren denboraldi guztiak ikusi ditu Jonek eta Joneri gomendatu dio ikus dezan.   |
| <input type="checkbox"/>            | <input type="checkbox"/> <b>x</b>   | Joneri telesailak ikustea gustatzen zaio historia eta filosofia ikasteko oso egokiak direlako   |
| <input type="checkbox"/>            | <input type="checkbox"/> <b>x</b>   | Joneri Sexo en Nueva York telesaila asko gustatu zitzaion arren, orain nahiago du Mad Men telesaila ikusi.  |
| <input type="checkbox"/>            | <input type="checkbox"/> <b>x</b>   | Jon Soprano's telesaila goitik behera kontatu dio Joneri eta Jone ez da konturatu ziria sartu diola.  |
| <input type="checkbox"/> <b>x</b>   | <input type="checkbox"/>            | Joni gehien gustuzten zaizkion telesailak ingelesak omen dira. Antza denez, telesail laburrak egiten dituzte eta zerbait desberdina dutela iruitzen zaio. |
| <input type="checkbox"/> <b>x</b>   | <input type="checkbox"/>            | Juego de Tronos litzateke Jonerentzat telesail normal samarra. Jonerentzat, aldiz, pertsonaiari lepo gehiegi mozten direla iruditzen zaio.                |

## 2.2 Ez bota spoilerrrik!

Jonek behin eta berriro esan duen esamoldea da. Ikasleek saiatu behar dute "spoiler" hitzaren euskarazko definizioa ematen

**Zuzenketa:**

**Spoilerra: Film, liburu, telesail... bat ikusi edo irakurri aurretik, hari buruzko esan ohi den datu edo informazio esanguratsua, gertatuko dena aurreratuz.**

# 3- Entzun ondoren

## 3.1 Telesail bat gomendatu blogean

Ikasleek beren gustuko telesail bat gomendatu behar dute ahoz, grabatu eta euskaltegiko blogean argitaratzeko:

- Lauko taldetan, gustuko telesailen zerrendan osatu eta denen artean, bat aukeratu behar dute
- Adostu zein diren telesail horren ezaugarriak aipagarrienak
- Ikasle bakoitzak gomendioaren atal bakarria garatu behar du: aurkezpena / zertaz den / bestelako ezaugarri aipagarriak / telesaila gomendatzea
- Atal bakoitzean zer esan edo ideiak hartzeko, lagungarria izan daitekeen testu bat dute.
- Prestatu ondoren, grabatu telesailari buruz osatu duzuen eta euskaltegiko blogera igo dezatela



### 1. TELESAILAREN AURKEZPENA

Mr Robot-en **denboraldi-hasiera hau ikusi dudan unetik**, azken aldian dastatu dudan irabiaturik ausartenaren eta berritzaileenaren aurrean nagoela ohartu naiz segituan. Geruza ugariz osaturiko **trama harrapakor** eta oso interesgarri batekin. Eta batez ere, begi bistara ikusten dugunaz haratago, azpian, **sakontasun handiko zerbait** topatu dudala. Zer ote zuen ba pilotu honek eskaintzeko? **Azken urteetan ikusitako** lehen-atl zirrargarri, berritzaile, harrigarri eta ausartenetarikoa. **la ezinezkoa, 50 minutuan gehiago ematea.**

### 2. ZERTAZ DEN

**Istorio erakargarri honen protagonista** Elliot Anderson dugu. **Pertsonaia** sakon honen atzean dagoena aldiz, jatorri egiptoarra duen Rami Malek aktorea. **Lan zoragarri eta ilun bat burutzen** duenak: Jendearekin erlazioatzeko **orduan**, arazo nabarmenak dauzkan tipo bitxia eta drogen menpe bizi dena. Ciber-segurtasunaren arloan lanean dabilen arren, ezaguera harrigarri horiek erabiliz, eguneko/gaueko beste tartetan, delitugile desberdinei “mozorroa kentzen” aritzen da. Baita hainbat vendetta pertsonal egiteko aprobetxatuz. Irrika jasanezin hori asetzeko, mendeku-zerrenda horren lehen postuan, bere aita lanean ibili zen multinazional teknologiko bat aurkitzen da: “E-Corp”. -Dirudienez, bere aita hiltzearen erantzule zuzenak.- Elliot-en irrika hori mendeku moduan asetzeko, lehen postuan aurkitzen den helburua. Bere aita lanean ibili zen multinazional teknologikoa eta dirudienez, bere aita hiltzearen erantzuleak. Bertako burua, Tyrel Wellick, momentuz antzeman daitekeenarekin behintzat, pertsonaia iluna eta desorekatua. Arrakasta besterik axola ez zaion tipoa eta sekretu ugariz josia.

### 3. BESTELAKO EZAUGARRI AIPAGARRIAK

Oso deigarria baita ere, **estetikaren arloa**. Alde batetik plano motak, hauen tratamendua eta musikarekin batera sortzen duten sinfonia hori, Kubrick-ekerabiltzen zuen antzeko planteamendua dirudi.

Gizarte moderno honetan, bakoitzaren egunerokoak duen zentzuari, kritika zorrotz eta sakon bat eginaz. Baina batez ere, nola multinazionalak diseinaturiko bizitza-mota honen esklabo bilakatu garen. Kontsumismoari muturrekoa azken finean.

### 4. GOMENDATU

**Zalantza izpirik gabe**, eta Lost-ekin gertatu zen bezala, ikuslearekin ezinbesteko konexioa eta biraltasuna sortuko duen telesaila. **Alde batetik**, internet bidezko “ahoz-ahoko” hori ezinbesteko bihurtuko delako, foro eta weborrialde desberdinetan sortuko diren teoriekin. Ikusi bestela web

ofizialean sortu duten “jokoa”. **Bestetik**, Elliot-ek Off-ahotsa erabiltzen duen bakoitzean, ikuslearekin ari dela elkar–eragiten,istorioa barne-barnetik sentituz. Laugarren ataleko eszena batean adibidez, zuzenean pantailaribegiratu eta: “ah! hor zaude, zutaz ahaztua nengoen” dio.

**Beraz, aurten, telesail bakar bat aukeratu behar baduzue**, ahaztu True detective II, Better Call Saul ala Sense 8, **Mr Robot izan dadila zuen hautatua, ez zarete damutuko**. Horrela jarraituz gero **urteko telesail onena bihurtzeko txartel guztiak dauzkan ekoizpena baita**.

Eta nork daki zerrenda honen kide izaten amaituko duen...– lehen denboraldia amaitzean ikusiko dugu-

1990 #Twinpeaks 1999 #TheSoprano’s 2002 #TheWire 2004 #Lost 2008 #BreakingBad 2011 #Gameofthrones.....2015...#MrRobot ??? ikusi beharko...

[www.argia.eus](http://www.argia.eus)

## BAKARKA EGITEKO ARIKETA

### 3.1 Besterik gabe

Elkarrizketako esaldi batzuk eraldatu ditugu. Ondoan dituzun hitzak erabilita, ea lortzen duzun audio-pasartean esan duten bezala jartzea.

Urte asko pasa ditut kantu hori entzun gabe	<b>Urteak</b> dira kantu hori <b>ez nuela</b> entzuten
Ez dut ezer berezirik prestatu	Ez dut <b>beste munduko</b> ezer prestatu
Bi horien artean alde handia dago	Bi horien artean, bada alde <b>edarra!</b>
Lasai, nik bakarrik esan behar nizun Tony Soprano harrapatu eta kartzelara eramaten dutela eta...	Lasai, <b>besterik</b> gabe esan behar nizun Tony Soprano harrapatu eta kartzelara eramaten dutela eta...
Sei ataleko denboraldiak egiten dituzte, pelikula luzeen antzera.	Sei ataleko denboraldiak egiten dituzte, pelikula luzeak <b>balira</b> bezala.
Ez dut film bat bera ere ezagutzen	Ez dut (film) <b>bakarra/ bakar bat</b> ere ezagutzen

## TRANSKRIPZIOA

W-JONE: Jon, badakit atzo pasau egin nintzela.

W-JONE: Berrito elkarrekin gaudenetik... badakit zuretzat ez dela erraza izan.

W- JONE: Kantu hau entzuten ari naiz Jon..

W-JON: Urteak dira kantu hori ez nuela entzuten.

W-JONE: Nik ezta ere. Nahi duzu afaltzera etorri etxera?

W- JON: Zuk nahi duzu joatea?

W-JONE: Bestela ez nizuke eskatuko

JONE Ez dut beste munduko ezer prestatu, azkenean berandu egin zait eta ez dut erosketak egiteko denborarik izan.

JON Berdin dio Jone.

JONE Etxean nituen lau gauzekin konformatu beharko dugu. Entsalada bat eta.



- JON Berdin diola Jone. Ez naiz afaltzeagatik etorri.
- JONE Atzokoa Jon sentitzen...
- JON Berdin dio Jone, atzokoak ere berdin dio, ez naiz horregatik etorri.
- JONE Zergatik etorri zara bada?
- JON Zurekin egon nahi nuelako, besterik gabe.
- JON Ez duzu konparatuko Mad Men hau eta Sexo en Nueva York.
- JONE Hau ez dago gaizki, baina niri asko gustatu zitzaidan Sexo en Nueva York.
- JON Buff, ba bada alde edarra.
- JONE Bai badakit petarda batzuk direla, baina nik ez ditut telesailak ikusten historia edo filosofia ikasteko Jon.
- JON Ikusi al duzu Sopranos ?
- JONE Ez
- JON Anderrek telesail osoaren kutxa duela esan dit eta utziko didala. Nahi baduzu ekarriko dizut
- JONE Baina zuk ikusia duzu?
- JON Bai, baina igual zuk zeuk ere ikusi nahi duzu.
- JONE Ongi dago?
- JON Bai, "de la hostia"... eta hirugarren sasotik aurrera... buf.
- JONE Ez bota spoilerrik
- JON Lasai, besterik gabe esan behar nizun Tony Soprano harrapatu eta kartzelara eramaten dutela eta.
- JONE Jon isildu
- JON Kartzelan dagoela ihes egiteko plan bat asmatzen duela eta.
- JONE Joon!
- JON Bere gorputz osoan tatuatzen duela kartzelako mapa bertatik ihes egiteko eta.
- JONE Zer anormala zaren.. Hori Prison Break-eko istorioa da!
- JON Jajajajaja "ez bota spoilerrik" , "ez bota spoilerrik".
- JON Niri gehien gustatzen zaizkidanak telesail ingelesak dira.
- JONE Klaro jakina, horretan ere espezialitza izan behar duzu.
- JON Sei ataleko denboraldiak egiten dituzte. Pelikula luzeak balira bezala eta ez dakit baina badute zerbait ezberdina... ez dira amerikadak..
- JONE Adibidez? Aipatu serieren bat.
- JON Luther, The Fall, Black Mirror, Utopia, The Misfits, Peaky Blinders...
- JONE Ez dut bakarra ere ezagutzen.
- JON Nahi baduzu kontatuko dizut zertaz doazen.
- JONE Jajajaj, eta ez duzu jende normalak ikusten dituen telesail normalik ikusten?
- JON Zer da telesail normal bat zuretzat?
- JONE: Ba ez dakit... Juego de Tronos...
- JON: Ah... Dragoiak, ipotxak eta sorginak azaltzen diren telesail bat normala da, bale
- JONE Bueno ulertu didazu.
- JON Asko gustatzen zait Juego de Tronos, pertsonaia bati kariñoa hartzen diozun bakoitzean, lepoa moztu egiten diote.
- JONE Jon! Spoiler!
- JON Baina ikusi duzula esan didazu eta?
- JONE Lehen sasoko kapitulu batzuk bakarrik, ez daukat denbora gehiegi telesailak hiruak ikusteko!
- JON Bada, esandakoa ez hartu kariño gehiegirik pertsonaia bakar bati ere.
- JONE Goazen ohera?
- JON Bale baina lehenago pasaidazu (pasa iezadazu) telefonoa



---

JONE Zure telefonoa edo nirea?

JON Nirea. Berrito entzun nahi dut.

JONE: Benga Jon goazen ohera

JONE Etorri nire besoetara.